



PANTAILAK EUSKARAZ BEHAR DITUGU

Pantailaz inguraturik bizi gara. Azken ikerketen arabera, Hego Euskal Herrian, egunean 11 ordu ematen ditugu pantaila ezberdinen aurrean: mugikorra, telebista, tableta, ordenagailua... ordu horietatik 4 telebistari begira, 2 *streaming* plataformak kontsumitzen, 2 sare sozialetan, eta 3 interneten. 12-17 urte arteko nerabeek, ikasketetako orduak kanpo utzita, egunean 4 ordu igarotzen dituzte pantailen aurrean. Baina zein hizkuntzetan daude hauek?

1. *Telebista*. Telebista digitalak dituen 30 katetatik, Donostialdean 3 ditugu euskaraz: *ETB1*, *ETB3*, eta *Hamaika Telebista*. Eta zenbat ikusentzule dituzte? 2020. urtean, *ETB1*en pantaila kuota %1,6koa izan zen. *ETB3*rena %0,3koa (bere pareko *Clan* eta *Boing*-ek baino askoz gutxiago). Ulertzekoak dira datu horiek, azken 7 urtean euskarara bikoiztutako film/telesail bakar bat emititu ez denean *ETB1*en, eta *ETB3*n duela 15 urteko *Doraemon*en atalekin jarraitzen dutenean. Ba al da munduan beste herrialderik, berezko hizkuntza bat duena, ofiziala lurraldearen zati batean, telebista publiko propioa duena, eta bere hizkuntzara edukirik itzultzen ez duena? EZ.
2. *Zinema*. Euskal Herriko zinemetan estreinatzen diren pelikula guztien %1a eskaintzen da euskaraz. Guztiak haurrentzako filmak, edota bertako ekoizpenak.
3. *Streaming Plataformak*. *Netflix* eta *Disney+* dira munduan nagusitzen ari diren streaming plataformak, baita gurean ere. Batak nazioarteko filme, telesail eta dokumental arrakastatsuenak ditu katalogoan; besteak *Pixar*, *Marvel*, *Disney*, eta *Starwars*-en haur eta gaztetxoentzako edukiak. *Netflix*-en 5.500 filme eta serie atalen artean, euskaraz 5 filme ikus daitezke, guztiak euskal ekoizpenak. *Disney+*en dauden 1.500 edukietatik, 0.
4. *Bideo joko eta sortzaile plataformak*. Gazteen artean arrakasta handia duten bideojokoetan eta interneteko sortzaile plataformetan, euskararen presentzia hutsaren hurrengoa da.

Ikerketa soziolinguistikoek frogatzen dute aisialdia bizi dugun moduak erabateko eragina duela hizkuntza ohituretan. Eta aisialdiaren zatirik handiena pantailak xurgaturik pasatzen dugu. Gure hizkuntzaren etorkizunarentzat estrategikoa da egoera iraultzea; baina horretarako legeak, egiturak eta, batez ere, borondate politikoa behar dira. Euskara pantailetan ez badago, jai dugu.